

ERABAKIA, EPAIMAHAIARENA, HIRUGARREN SAILKAPEN TALDEA, TEKNIKARI ESPEZIALISTEN KATEGORIAN, MEKANIKA ESPEZIALITATEAN, LAN KONTRATUDUN LANGILEAK SARTZEKO HAUTAKETA PROZESUA, 2018KO AZAROAREN 2KO ERREKTOREAREN EBAZPENAREN BIDEZ EGINDAKO DEIALDIA.

Deialdiaren zortzigarren eta hamabigarren oinarri orokorretan eta oinarri espezifikoen 3. puntuari jasotakoarekin bat (UPV/EHUko Errektorearen 2018ko azaroaren 2ko erabakietan), epaimahaiak honako hau iragarri du:

LEHENENGOA. –Oposizio-faseko ariketak zuzentzea, eta txanda irekiko gaituen behin-behineko zerrendak egitea, dagozkien kalifikazioen eta puntuazio-hurrenkeraren arabera.

BIGARRENA. – Zerrenda horiek EHUko enplegu-atarian (https://gestion-enplegu.ehu.es/jobsite_g/euskera/generico_login.jsp?prcs=265) argitaratzea, hautagaiek kontsulta ditzaten.

HIRUGARRENA. – Hautaketa prozesu honen Oinarri Orokorrei lotzea (8.4 eta hurrengo artikuluetan):

- Hamar lanegunen epea ematea, egoki leritzeketen erreklamazioak egin daitezzen, honako erabaki hau argitaratu eta biharamunetik abiatuta. Halaber, epe horren barruan, gaitutako izangaien lehiaketa-faseko merezimendu konputagarriak alegatu eta egiaztatu beharko dituzte, hala badagokio. Oposizio-aldiko behin-behineko emaitzei erreklamazioen bat egiten dietenek merezimenduen alegazioa eta egiaztapena aurkeztu beharko dituzte horiekin batera.
- Interesdunek eskabidean alegatutako merezimenduen jatorrizko egiaztagirak eta kopiak aurkeztu beharko dutela erkaketa egiteko, edo, bestela, organo eskudunak behar bezala erkatutako kopia.
- Baldintza horietan berberetan aurkeztu beharko dituzte egiaztagirak, kautelaz, oposizio fasea gaitutu ez dutenek, baldin eta errekurtsioa aurkeztu badute eta horrek hasierako fasea gaitutzea ekar dezake.
- Bestalde, UPV/EHUk ofizioz aurkeztuko ditu UPV/EHUn zerbitzuak bete dituzten hautagaien egiaztagirak, baldin eta eskari orrian horrela adierazi badute.
- Gaitutako zerbitzuak egiaztatu egin beharko dira egiaztagiri bidez, eranskinean jasotako ereduari jarraituz.
- Dokumentazio hori horretarako gaitutako EHUko erregistroetan aurkeztu ahal izango da. Era berean, eskariak aurkeztu ahal izango dira Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aipatzen diren bideak erabiliz (39/2015 Legea, urriaren 1eko, 16.4. art.), lege horretako azken xedapenetako zazpigarrenak erregistro elektronikorako ezartzen duen salbuespenarekin (hau da, erregistro elektronikoa dagozkion xedapenak hasiko direla ondorioak sortzen legea indarrean sartu eta bi urteren buruan).

Leioa, 2019ko abenduaren 18a

Epaimahaiko idazkaria

Jorge Ezkurdia González